

Neurotikoak gara, sentitzen dut



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Iragan udan, *neurosiaren prebentzioari* buruzko ikastaroa eskaini nuen Hik Hasiko topaketa pedagogikoen baitan. Jende askok eman zuen izena, izenburua erakargarria egingo zitzaielako, seguruen, zuzenean ematen baitzuen aditzera buruko osasuna (edo osasun eza) ez dela zorizko kontu bat, aldez aurretik ikusi daitekeen zerbait baizik, eta hain zuzen ere horrexegatik, hasieratik beretik zaindu beharrekoa.

Neurosia prebenitu daiteke, bai. Ongi detektatuta daude gizakion sufrimendu psikologikoaren arazoak, eta, horiek daukaten dimentsio sozial, politiko, eta ekonomiko erabakigarri horretatik haratago, badago gure konfigurazio psikologikoarekin zerikusia duen jatorri bat ere, zeinak zuzenean garamatzen, ezinbestean, haurtzarora zaintzeko orain eta hemen dugun modua auzitan jarri eta aldaketa sakonak egitera.

Dena den, neurosia zeri esaten diogun, hori da kontua. Zeren eta bai, buruko trastornoekin lotuta ulertu ohi dugun kontzeptua da, klinika eta diagnostiko psikologikoaren esparruan erabilitako terminoa delako, patologia mota bat isladatzeko eta izendatzeko sortua. Horraino, ados. Baina, zer kontsideratzen dugu patologiko, edo neurotiko?

Sintomatologiari ematen diogu, pato-

logia eta osasunaren artean ezberdintasuna egiteko funtzioa. Horrela, sintoma batek zerbait ongi ez dagoela adierazten baldin badu, patologia maila bat dagoela, alegia, sintomarik ez egotea dena ongi egotearen gisan ulertu behar dela uste izaten dugu; osasuna sintomarik eza hutsarekin identifikatzen dugu. Baina, gauza bera ote dira benetan?

Buruko osasuna normalitate baten barruan jokatzearekin eta bizitzearekin identifikatzen dugu, gizarteari egokitzeko pertsona batek duen gaitasun hutsaren arabera neurtuta. Zabalagoa beharko luke kontzeptuak: geure buruarekin, gainerakoekin eta munduarekin modu asebetegarrian erlazionatzeko ahalmena. Baina buruko osasunarena, egia da, ideologiarekin eta politikarekin oso erlazionatua dagoen esparrua da, *tratatzeko* modukoa zer den erabakitze-ko, pertsonon jokabideak epaitu behar izaten dituztelako, sanoen eta patologikoen artean sailkapena eginez, ezinbestean.

Oro har, gizarte batean ongi funtzionatzen eta jokatzeko duen populazioa hartzen da normalizat, eta are sanotzat ere, baina normalitate hutsa ez da buruko osasunaren sinonimoa, ezta eromenetik kanpo egotearen adierazle ere. Jokabide normalaren adostasun tazitoak,

gizakiaren behar oinarritzokoei erantzuteko gai ez den gizarte eta bizimodu bat sostengatu dezake, eta gurean hala gertatzen dela uste dut.

Etengabe beharko genuke errebisatu zer kontsideratzen dugun sano eta zentzuzko, normala eta ohikoa izate hutsa-gatik. Izan ere, patologia asko ezkutatu daiteke normalitate-etiketaren azpian, eta oso funtzionamendu patologikoak kontsideratu, modu horretan, sano. Normalitateak ez du ezer bermatzen, ez bada gizarte eta bizimodu konkretu baten funtzionamendua eta kontrola.

Gure gizartea eta bizimodua hain da disfuntzionala, hain dago gizakien behar eta erritmoaren arabera antolatua egotetik urrun, non ez den bakarrik gure gizartearen funtzionamendu normala neurotiko gisa kalifikatu beharra dagoela, baizik eta geuk ere garatu behar izaten dugula neurosi maila bat, gizartean integratuko bagara, bizimodu patologikoa onartuko badugu.

Horregatik gara denak neurotiko. Heziketaren bitartez arrakastarako balioak direla esan zaizkigun izakera-ezaugarri horiek guztiak kontsideratuko lirakeelako patologiko gizarte minimoki sano batean. Gizarte (eta eskola) arrakastarako, neurosiaren prezioa ordaindu behar da. ●